

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa askotan bezala, gure funtsezko jarduera gure produktuaren ekoizpenean eta salmentan datza. Salmenta honekin lortzen dena honakoa da: beharrak dituzten pertsoneri laguntzea. Horretarako, gure produktuaren ekoizpenean prozesu egoki bat eramatea garrantzitsua da, honen bidez, gure produktuak ondo saldu ahal izango direlako eta garrantzitsuena, laguntza askokoak izango direlako.

Ekoizpenean hainbat makinak eta langilek hartuko dute parte. Makinak ekoizpen katea egiteko espresuki egongo dira kokatura, eta langileak ere. Azken hauek makinaren artean kokatuko ditugu, makinentzat egiteko ezinezkoak diren lanak egiteko.

Salmenta ona edukitzeko ordea, egiten dugun promozioak pisu handia edukiko du, hau gabe ezingo ditugulako gure produktuak bistaratu. Produktua bezeroren bateri saltzean, gure enpresak furgoneta bidez emango dio produktua bezeroari, honentzat erresagoa izateko. Honetaz gain, gure enpresak edukiko duen web gune propioak ere asko lagunduko du. Denen eskura egongo denez, edozein pertsonak izan dezake honen berri, eta sarean zehar zabaldu gure produktua. Eskerak bai telefono edo mugikor bidez eta baita internet bidez egin daitezke.

